

## UPV/EHUko MEDIKUNTZA ETA ERIZAINNTZA FAKULTATEAREN BATZARRERAKO 2021eko HAUSTEKUNDEETARAKO ESKULIBURUAREN 2. FASEA

**Hautagaitza bat aurkezteko baldintzak**  
**Hauteskunde barrutiak, sektoreak eta hautagaitzak**  
**Hauteskunde mahaiak**

- a) **Hauteskunde mahaien kopurua**
- b) **Hauteskunde mahaien osaera eta zozketa**
- c) **Artekariak izendatzeko eskaera:**

**Hauteskunde kanpaina**  
**Hauteskunde intendentzia**

### **Hautagaitza bat aurkezteko baldintzak**

Ordezkariek aukeratzeko, hautagaitza kolektiboak, itxita eta hurrenkeran zehaztuta, idatziz aurkeztuko dira, **Erregistro Orokorraren** bulegoetako batean, 2021eko urtarrilaren 28an goizeko 10:00ak baino lehen, eta Ikastegiko Hauteskunde Batzordearen buruari zuzenduko zaizkio.

Erregistro Orokorraren bulegoek hautagaitzak berehala helarazi beharko dizkiote Fakultateko Hauteskunde Batzordearen buruari. Hautagaitzetan ordezkioak aurkeztu ahal izango dira.

Hautagaitzek hautagai guztien sinadura originala eduki beharko dute. Hautagaitza horietan, **gutxienez lau pertsona** egongo dira ikasleen sektorerako, **hiru gutxienez** AZPko langileen sektorerako, **bi gutxienez** bestelako irakasle-ikertzaileen sektorerako eta **12 gutxienez** irakasle-ikertzaile iraunkorren sektorerako. Era berean, **emakume eta gizonen presentzia orekatua** bermatu beharko da, **txandakako hurrenkeran**.

Ikastegiko Hauteskunde Batzordeak hautagaitza bakoitzaren pertsona guztiek aurkezteko baldintzak betetzen dituztela egiaztatu behar du, eta aurkeztutako hautagaitzak jendaurrean jarri behar ditu, leku egokietan.

Hautagaitzaren bat gutxieneko pertsona kopurura iristen ez bada, sinaduraren bat falta bada edo baten bat originala ez bada, edo pertsonaren bat aurkezten den sektoreko kidea ez bada, Hauteskunde Batzordeak behin-behinean onartuko du; alabaina, otsailaren lehen, goizeko 10:00etan; hots, behin-behineko aldarrikapenari inpugnazioak aurkezteko epea ixten denean, akats formal hori zuzendu ezean, hautagaitza kanpoan geratuko da behin betiko.

Era berean, behin-behineko aldarrikapena egin ondoren, inpugnazioak aurkeztu ahal izango dira. Unibertsitateko Erregistro Orokorraren bulegoetan aurkeztu beharko dira, 2021eko otsailaren 1eko goizeko 10:00ak arte.

Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorraren 16.3 artikularen arabera, hautagaitza bakoitzak posta elektronikoko helbide bat edo harremanetan jartzeko beste bide bat adieraziko du, hauteskunde prozesu osoan barrutiko Hauteskunde Batzordeak norabide bakarrean erabili ahal izango duena aurkeztutako hautagaitzari dokumentazioa eskatzeko, informazioa bidaltzeko eta eskakizunak egiteko; horrela, Hauteskunde Batzordearen erabakiak ahalik eta lasterren iritsiko zaizkie hautagai interesdunei, prozedurari bizkortasun eta eraginkortasun are handiagoa emanez.

Hauteskunde Batzordeari dagokio inpugnazioak ebatzea eta hautagaitzak behin betiko aldarrikatzea, haiek dagokien campus eta ikastegietako iragarki oholetan argitaratzeko agindua emanez. Hautagaitzak otsailaren lehen aldarrikatuko dira behin betiko.

Jarraibide hauei hautagaitza eredu bat erantsi zaie, eta gomendatzen dugu hori erabiltzea.

### **Hauteskunde barrutiak, sektoreak eta hautagaitzak**

Erroldak hauteskunde barrutiaren arabera egiten dira, eta, beraz, hautagaitzen aurkezpena lotuta dago bai hauteskunde barrutiari, bai sektoreari (ikasleak, AZPko langileak, IRI iraunkorrak, bestelako IRIak).

Masterreko ikasleen barrutia fakultate hau da. Ikasketak egiten dituzten ikastegietan argitaratutako fakultateko graduako eta graduondoko (master) ikasleen erroldetan ageri diren pertsona guztiek aurkez ditzakete hautagaitzak, zer ikastegi edo campusetan ikasten duten albo batera utzita.

### **Hauteskunde mahaiak**

Hauteskunde Batzordeak hauteskunde mahaien (3 mahaikide eta haien ordekoak) eraketaren zozketa eta egiaztapena egin behar du.

Horri dagokionez, unibertsitateko kide guztiei gogoratzen zaie NAHITATEZKOA DELA HAUTESKUNDE MAHAJETAN PARTE HARTZEA.

**a) Hauteskunde mahaien kopurua**

Hauteskunde Batzordeak erabakiko du zenbat mahai egongo diren, eta zozketaz aukeratuko ditu mahaikideak.

**b) Hauteskunde mahaien osaera eta zozketa**

Hauteskunde mahaia mahaiburu batek eta hiru mahaikidek osatzen dute. Edonola ere, mahaiburu bat eta hiru mahaikide izendatuko dira txanda bakoitzerako, eta elkar ados jarrita antolatuko dira dagokien zereginak betetzeko, Saioaren Aktan horren berri emanez.

Ikastegiko Hauteskunde Batzordeak zozketa bidez egingo du aukeraketa, dagokion erroldan izena emandako hautesleriaren artean. Zozketan ez dira sartuko lehendik hautagai gisa aldarrikatuta izan diren pertsonak.

Ikastegiko Batzarrerako ikasleen ordezkariak aukeratzeko, Ikasleen Mahai bat eratzea gomendatzen da.

Mahaiburua ikastegiko dekanoa edo zuzendaria izango da, edo haren ordezkoa, eta hiru mahaikideetatik bi ikasle zozketaz hautatuko dira, ikastegiko ikasleen erroldatik. Postu bakoitzerako hiru pertsona zozketatu behar dira; hortaz, mahai bakoitzeko, 9 pertsona aukeratu behar dira zozketa bidez, bi txandak betetzeko. Zozketa egiteko, zenbaki bat ateratzen da erroldatik, eta hortik aurrera izendatzen dira kide guztiak eta haien ordezkioak.

Ezin zaio uko egin mahaikide izateari, non eta behar bezala egiaztatutako arrazoiaren bat ematen ez den, Ikastegiko Hauteskunde Batzordeko idazkariari idatziz igorri beharko zaiona zozketaren jakinarazpenean adieraziko den epearen barruan; hortaz, hauteskunde mahaiko kideak justifikaziorik gabe joaten ez badira, zigorrak ezarri ahal izango zaizkie.

Ikastegiko Hauteskunde Batzordeko idazkariak jasoko ditu *kargua onartzea eragozten dien arrazoi justifikatu eta dokumentatu*en berri ematen duten pertsonen alegazioak. **Betebehar akademikoak ez dira arrazoi justifikatutzat hartzen; izan ere, bozketaren egunean hauteskunde erantzukizunak lehenetsiko dira unibertsitateko kide guztientzat.** Arrazoi justifikatu guztiak dokumentatu behar dira, ez baita nahikoa alegazio hutsa egitea.

Zozketaren egun berean jakinarazi behar zaie emaitza aukeratutakoei, eta kargua hartzea eragozten dien arrazoiaren justifikazioa aurkezteko epe bat izango dute, *azaroaren 28ko 12:00ak arte*; izan ere, justifikazioa onartuz gero, haien ordezkioak izendatu beharko dira, eta dagozkien jakinarazpenak igorri beharko zaizkie.

Ahaleginak ahalegin, mahaikideren bat joan ez delako mahaia eratu ezin bada, bertan daudenek egoera jakinaraziko diote berehala Hauteskunde Batzordeari, eta horrek hauteskundeak zuzen bermatzeko pertsona egokienak libreki izendatu ahal izango ditu, edo izendapen hori ikastegiko dekanoren edo zuzendariaren esku utzi ahal izango du. Aurrekoa gorabehera, eta salbuespen egoeretan, hauteskunde mahaian gutxienez hiru (3) pertsona egongo dira.

### **c) Artekariak izendatzeko eskaera**

Azkenik, adierazi behar da hautagaitzek hauteskunde mahai bakoitzeko artekariak izendatzeko eskatu aha izango diotela Hauteskunde Batzordeari, otsailaren 1eko goizeko 10:00ak arte. Eskaeran, proposatutako artekarien izen-abizenak, helbidea eta harremanetarako telefono zenbakia adierazi beharko dute, eta horrekin batera, interesdunek sinatutako dokumentu bat, non artekariak edo ordezkioak izatea onartzen dutela adierazten den. Artekari bakoitzeko ordezkio bat izendatu daiteke, eta horrela txandakatu ahal izango dira bozketaren egunean.

Idazkariak artekariak izendatuko ditu, eta izendapenak ikastegiko hauteskunde batzordeei jakinaraziko dizkie.

Artekariak ezin dira hauteskunde mahaietako kide izan; beraz, horietakoren bat izendatzen badute, dagokion barrutiaren Hauteskunde Batzordeak ordezkiatuko du, lehen aipatutako irizpideen arabera.

### **Hauteskunde kanpaina**

Hauteskunde Batzordeak bilera baterako deituko ditu hautagaitzak, propaganda jardueren (hauteskunde kanpaina) egutegi bat adosteko. Hauteskundeen propaganda ekitaldiak hautagaitzen behin betiko aldarrikapena egiten denetik (otsailaren 1a) bozketaren aurreko 24 ordura arte egin ahal izango dira. Garrantzitsua da argi geratzea otsailaren 8an ezingo direla egin hauteskundeko propaganda ekitaldiak.

Ikasleen hautagaitza bakoitzak eskola ordu bat izango du, bere programa azaltzeko. Ordu horretan irakaslanak etengo da, eta aipatutako hautagaitzek lokal egoki bat izango dute horretarako. Denbora hori antolatzea hauteskunde barruti bakoitzaren hauteskunde batzordeen eskumena da, eta hura zatitzea erabaki dezakete, irakasgai jakin batzuen irakaskuntzari bakarrik ez eragiteko.



Universidad del País Vasco  
Euskal Herriko Unibertsitatea

MEDIKUNTZA  
ETA ERIZAINZEA  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE MEDICINA  
Y ENFERMERÍA

## **Hauteskunde intendentzia**

Hauteskunde Batzordearen bileran, bozketa egiteko erabiliko diren boto paperen eta gutunazalen ereduak adostu behar dira. Hautagaitza bakoitzeko boto paper bat erabiltzea gomendatzen da, horrek zenbaketa errazten baitu; dena den, formatu eta kolore bera izan behar dute guztiek.

Ezinbestekoa da bozketa honetan gutunazalak erabiltzea, eta gutunazal guztiak berdinak izango dira.

Boto paperak eta gutunazalak eskuragarri egongo dira otsailaren 1etik aurrera, data horretan hasiko baita botoa alde aurretik emateko epea.